



CAJA LABORAL GESTIÓN SGIIC, S.A.-REN ESG INTEGRAZIO POLITIKA

1. POLITIKAREN XEDEA

Politika honen helburua Caja Laboral Gestión SGIIC, S.A.-n integratuta dauden inbertsio-funtsetako inbertsioen ESG faktoreak (ingurumenekoak, sozialak eta gobernanzakoak) integratzeko barne-prozedurak definitzea. Prozedura horrek garapen jasagarria sustatzea du xede, horretarako ingurumeneko irizpideak, irizpide sozialak eta egindako inbertsioen gobernantza onekoak integratuz.

Politika honek bi ikuspegitatik heltzen die inbertsio sozialki arduratsuei:

- a) Alde batetik, bazterketa, sektore sentikorrenen eta desadostasunen ikuspegitik.
- b) Bestetik, finantzaz kanpoko arriskuak eta ESG irizpideak (ingurumenekoak, sozialak eta gobernanzakoak) aztertzeko eta kudeatzailean integratutako inbertsio funtsen inguruko inbertsio-erabakiak hartzeko integrazio-prozesu batetik.

Zorro delegatuen kudeaketa eta Caja Laboral Gestión-ek beste entitateei ematen dien aholkularitza finantzaz kanpoko arriskuen integrazio-politikei eta, halakori balego, kudeatutako edo aholkatutako bitartekoei jarraikiz egingo da.

2. BAZTERKETA-POLITIKAK.

Caja Laboral Gestión SGIIC, S.A.-k politika honetan zehaztutako helburu, printzipio eta irizpideekin lerokatu nahi du negozioaren etapa bakoitza. Hori lortzeko funtsezko etapetako bat da bezero edo enpresa berriekiko harremanaren hasiera. Bazterketak lehen hesi izaten dira, ESG irizpideak prozesu horietan integratu direla ziurtatzeko. Horretarako, kudeatzaileak alde batera uzten ditu hurrengo azpiataletan egiten diren jarduerak eta sektoreak.

2.1. BAZTERKETA OROKORRAK

Kudeatzailean sartutako funtsak ez dira sartuko jarduera/konpainia jakin batzuetan; hain zuzen ere, [Nazioarteko Finantza Ekintzako Taldeak \(GAFI\) argitaratzen duen](#)



[zerrenda beltza](#)¹ esaten zaion “arrisku publiko handikotzat identifikatutako jurisdikzioen” zerrendako herrialdeetakoak diren jarduera/konpainien kasuan.

Gainera, ez dira sartuko “Norges Bank Investment Management (NBIM) erakundeak argitaratzen duen ["Konpainien behaketa eta bazterketa"](#)² zerrendan agertzen diren enpresetan. Norvegiako funts subirano horrek epe luzeko ikuspegia duen erantzukizuneko eta etekinen kudeaketako politika bat aplikatzen du, egungo eta etorkizuneko belaunaldien garapena sustatzeko asmoz. NBIMren bazterketa-zerrendari atxikitzeak aukera ematen dio kudeatzaileari erreferente azkar, ospe handiko eta kontraste errazeko bat izateko, eta erreferente hori bereziki beharrezkoa da inbertsio-jarduerarako, erabakiak pertsona gutxi batzuek hartzen dituztelako eta banakako analisiak egiteko gaitasuna mugatua izan daitekeelako.

2.2. SEKTORE ZEHATZETATIK KANPO UTZITAKO JARDUERAK

Inbertsiotik kanpo geratzen dira haien jarduera nagusia jarraian zerrendatutako sektoreetan sartzen diren igorleak, ESG inbertsioei dagokionez kudeatzailearen estrategiarekin, hasiera batean, bat ez datozelako.

Jarduera nagusitzat hartzen da igorlearen diru-sarrerara guztien gutxienez % 50 hartzen duena.

Sektore zehatzetatik kanpo utzitako jarduerak

Zoria

- Ausazko jokoak eta, bereziki, online apustuak eta/edo mendekotasuna sortzeko arrisku handia dutenak sustatu, garatu edo eskaintzen dituzten jarduerak.

Salbuespena

- Benetan helburu soziala duten jarduerak.

Ikatza

- Ikatz-meatze berriak irekitzea edo lehendik daudenak handitzea dakarten jarduerak.
- Ikatzezko zentral elektriko berriak irekitzea dakarten jarduerak.
- Ikatza erauzi, prestatu eta banatzearekin lotutako jarduerak.

Defentsa

- Gerrako armen ekoizpena, mantentze-lanak edo salerosketa xede dituzten jarduerak, bereziki, giza eskubideak urratzeko arrisku handia duten herrialdeetara bidaltzeko direnean.
- Zuzenean baztertzeko dira arma polemikoen ekoizpena, mantentze-lanak edo

¹ ["Black and grey" lists](#)

² [Observation and exclusion of companies | Norges Bank Investment Management](#)



salerosketa, hau da, jendea bereizi gabe edo neurriz kanpo zauritu dezaketen armak. Arma polemikotzat hartuko dira honako hauek:

- Pertsonen aurkako minak
- Arma biologikoak kimikoak edo nuklearrak
- Luku gisako edo uraniozko munizioak
- Arma su-emaileak (fosforo zuria, esaterako)
- Laser-arma itsugarriak
- Zatitu ezin diren munizioak
- Hautemanezinak diren zatikatze munizioak

Salbuespena

- Aisialdiko armekin lotutako jarduerak salbuespen izango dira.

Sexuaren merkantilizazioa

- Pertsonen sexu-esplotazioa eragiten edo babesten duten eta Giza Eskubideen aurka doazen jarduerak, hala nola prostituzioa edo material pornografikoaren ekoizpena.

Meatzaritza

- Gatazka-iturri diren mineralak erauztearekin edo metodo polemikoen bitartez erauztearekin loturiko jarduerak, hala nola:
 - Ur sakonetako meatzaritza
 - Uranioa edo amiantoaren erauzteak
 - Mountain-top Removal (MTR) metodoa erabiltzea
 - Erauzketa gatazka armatu bat aktibo dagoen zonaldeetan
 - Urrea eta diamanteak erauzteak ziurtagiririk gabe edo ziurtapen-prozesurik gabe

Tabakoa

- Tabakoa edo osasunerako kaltegarriak diren antzeko elementuen ekoizpena eta prozesamendua bultzatzen duten jarduerak.

Salbuespena

- Banaketa-jarduerak.

Giza klonazioa



3. FINANTZAZ KANPOKO ARRISKUAK INBERTSIO-ERABAKIETAN INTEGRATZEKO PROZEDURA.

Hurrengo azpiatalak ESG faktoreak (ingurumenekoak, sozialak eta gobernu onekoak) Caja Laboral Gestión SGIC, S.A.-n integratutako inbertsio-funtsen inbertsioak aztertzeko eta erabakiak hartzeko prozesuetan, integratzeko barne-prozeduraren xehetasunak biltzen ditu.

Prozedura hori gutxienez urtean behin berrikusiko da. Prozedura, kudeatzailearen Administrazio Kontseiluak onartuko du, bai eta ondorengo aldaketak ere.

3.1. FINANTZAZ KANPOKO DATUAK

3.1.1. ESGen informazioa

ESG irizpideak inbertsioen inguruko erabakiak hartzeko prozesuetan integratzeko prozeduraren barruan, nabarmentzekoa da aztertuko den aktibo motaren arabera erabili beharreko finantzaz kanpoko informazioa.

Errenta aldakorreko zuzeneko aktiboen (**akzioak**), errenta finko pribatuko zuzeneko aktiboen (**bonu korporatiboak**) eta inbertsio kolektiboko erakundeen (**IKEak**) kasuan, Clarity AI softwarearen bidez emandako finantzaz kanpoko informazioa erabiltzeko erabakia hartu da. Informazio hori modu agregatuan biltzen da honen bidez:

- **ESG Risk**: sektorearen adostasunaren ESG puntuazioa ematen du. Puntuazio hori adituen analisietan oinarritzen da eta erakunde arautzaileen iritzia biltzen ditu, sektorearen estandarrak eta ESG arriskuari lotutako eragile nagusiak aintzatezten dituelarik.

Puntuazioak hiru motatako datuak hartzen ditu barne; **Kuantitatiboak** (datu neurgarriak), **Politikak** (datu kualitatiboak) eta **Desadostasunak** (albiste gisa egituratutako datuak). Puntuazio horiek enpresa bakoitzaren errendimendu erlatiboa hartzen dute kontuan hautatutako homologoekiko eta enpresa-mailan agregatzen dira, metrika bakoitzak sektore jakin batean eragin finantzarioa izateko daukan probabilitatea adierazten duen materialtasun-matrize bat jarraituz.

Errenta finko publikoko zuzeneko aktiboen (zor subiranoko bonuak, nazioz gaindiko zorren edo zor autonomikoenak) kasuan, jaulkipen horien funtsaren likidezia kudeatzeko aldibereko bonuak barne, hemen bildutako informazioa erabiltzea erabaki da:

- **Demokrazia-indizea**: The Economist-en Inteligentzia Unitatearen sailkapena, 167 herrialdetako demokrazia-maila zehazteko. Hemen kontsultatu daiteke: www.eiu.com.
- **Social Progress Index**: herrialdeek bertako biztanleen beharrak (sozialak eta ingurumenekoak) zein neurritan asetzen dituzten neurtzen du. Social Progress Imperative-k kalkulatu du eta hemen kontsulta daiteke www.socialprogress.org



- **SDG Dashboard:** herrialde bakoitzak Nazio Batuen garapen jasangarrirako helburuen (GJH) 17 helburuetako bakoitzarekiko daukan jarrera neurtzen du. Hainbat erakundek (Garapen Jasangarrirako Irtenbideen Sarea, NBErekin elkarlanean) kalkulatzeko dute eta hemen kontsulta daiteke: www.dashboards.sdgindex.org

Ageriko eta eperako gordailuetako aktiboak eta deribatuetako posizioak zorroen ESG analisitik kanpo geratzen dira.

3.1.2. **ESG ratingaren metodologia**

Errenta aldakorreko zuzeneko aktiboen (**akzioak**), errenta finko pribatuko zuzeneko aktiboen (**bonu korporatiboak**) eta inbertsio kolektiboko erakundeek (**IKEak**) kasuan, honako metodologia hau erabiltzen da:

- Aztertuko den aktiboa Clarity AI-k eskainitako ESG arriskuek estaltzen badute, balio hori hartuko da erreferentzia gisa. Indize honen puntuazio-eskala 1 eta 100 bitartekoa da; 1 puntuazio baxuenari dagokio eta 100, berriz, altuenari.
- Aztertuko den aktiboa Clarity AI-k eskainitako ESG arriskuek estaltzen ez badute, 0 balioa esleituko zaio.

Errenta finko publikoko aktiboak zenbatesteko, honako urrats hauetan oinarritzen da metodologia:

- Kalifikazio bateratua (0-100) = %50 Social Progress Index Score + %50 SDG Dashboard. Herrialde bakoitzak 0 eta 100 bitarteko kalifikazio bat lortuko du; 0 baloraziorik okerreza izango da eta 100, berriz, onena.
- Demokrazia-indizea: (0-10). Herrialde bakoitzak 0 eta 10 bitarteko kalifikazio bat lortuko du; 0 baloraziorik okerreza izango da eta 10, berriz, onena.

3.1.3. **ESG integratzeko tresnak**

Jarraian, ESG datuak kontsultatu eta kontsumitzeko tresna eta plataformen erabilerari buruzko xehetasunak ematen dira:

Inbertsioak (Front Office)

- **Akzioak, Errenta finko korporatiboa eta Inbertsio-erakunde kolektiboak:** Clarity / ESG ratingen barneko Excel dokumentua
- **Zor publikoa:** web-orria / ESG ratingen Excel dokumentua

Barne-kontrolerako Unitatea

Akzioak, Errenta finko korporatiboa eta Inbertsio-erakunde kolektiboak: Clarity / ESG ratingen barneko Excel dokumentua

- **Zor publikoa:** web-orria / ESG ratingen Excel dokumentua



3.1.4. Datuen gobernantza

Barne-kontrolerako Unitatea da ESGen informazioaren gobernantzaren arduraduna. Informazio hori hiru hilean behin eguneratuko da eta Barne-kontrolerako Unitateak gutxienez urtean behin helarazi beharko dio eguneratze hori Administrazio Kontseiluari, aktan gordeta gera dadin.

ESGen informazioaren datu-baseak Caja Laboral Gestión SGIIC, S.A.-ren Barne-kontrolerako Unitateren fitxategietan daude.

3.2. INTEGRAZIOA

ESG faktoreak inbertsio-erabakiak hartzeko prozesuetan integratzeko, **ikuspegi holistiko** bat erabiltzen da. Horren helburua da **aktibo guztien eta bereziki, arrisku material handiena duten baloreen arrisku-kudeaketa** (risk management) **indartzea eta hobetzea**. ESGen integrazioaren helburua inbertsio-erabakiak hartzen laguntzea da, errentagarritasuna eta arriskua kontuan hartzen dituen ikuspegi batean oinarrituta baloreen baliozkotasunaren inguruko eztabaida sustatuz.

3.2.1. Integratzeko irizpideak:

Lehenik, **integrazio-irizpidea** ezarriko da, informazio hori inbertsioen analisia egiteko eta haien inguruko erabakiak hartzeko prozesuan aurretiaz behar bezala integratzen dela ziurtatzeko.

Errenta aldakorra (akzioak), errenta finkoa (bonu korporatiboak) eta Inbertsio-erakunde kolektiboak

- Aktiboko gutxieneko ratinga (erabaki-atalasea): **35/100**

Zor publikoa

- Aktiboko gutxieneko ratinga (erabaki-atalasea):
 - o Kalifikazio bateratua (% 50 Social Progress Index Score + % 50 SDG Dashboard): **70/100**
 - o Demokrazia-indizea: **6/10**

Irizpideok Caja Laboral Gestión SGIIC, S.A.-n integratutako inbertsio-funts guztietan aplikatuko dira.

3.2.2. Diskrezionalitate-maila

Integrazio-irizpidea ezarri ondoren, inbertsioei lotutako ESGen arriskuak ebaluatu eta kudeatzeko **diskrezionalitate-maila** definituko da. Integrazio-irizpidea arriskuen kudeaketaren ikuspegitik definitzen da.



Errenta aldagorrean (akzioak), errenta finkoan (bonu korporatiboak eta zor publikoa) eta IKEan inbertitzearen bidezko integrazioa

- Kudeatzaileak 3.2.1. atalean definitutako atalasearen azpitiko ESG ratinga daukan aktibo batean inbertitu nahi badu, Barne-kontrolerako Unitateak aurrez onartu beharko du. Onarpen hori jasota utzi beharko da, erabakia hartu izanaren trazabilitatea egon dadin.
- Arrisku handiko aktiboen inbertsioen diskrezionalitatea kontrolatzeko, honako muga hauek ezartzen dira:
 - o 3.2.1. atalean definitutako atalasea baino **ESG rating baxuagoa edo daturik ez** duten aktiboetara, balore-zorroek **%20ko** esposizioa izango dute gehienez. Ehuneko hori ondasunen zorroaren zatia gainean kalkulatzeko da.
 - o Zorroaren **gutxieneko** batez besteko **ratinga: 40/100**.

Beste muga batzuk:

- Zorroak integrazio-politika eta hemen azaldutako prozedura betetzen dituela jotzeko, gutxienez zorroaren **%80k**, zuzeneko aktiboak (akzioak, errenta finko pribatua eta zor publikoa) eta IKEak barne, adierazitakoaren arabera **ESG ratinga daukala bermatuko** da.

3.3. JARRAIPENA ETA KONTROLA

Ondorengo atal honek integrazio-politika betetzen den kontrolatu eta jarraitzeko abian jarritako mekanismoak biltzen ditu.

3.3.1. Jarraipena eta kontrola

- Akzioen eta errenta finkoaren ESG ratinga hiru hilabetero berrikusiko da. Zor publikoari dagokion ESGen informazioa, berriz, urtean behin. Berrikuspena Barne-kontrolerako Unitateak egingo du eta bera izango da datu-base hori zehaztutako epean eguneratuta edukitzearen arduradun.
- Barne-kontrolerako Unitateak hiru hilero egiaztatuko du Integrazio Politiken baitako zorro guztiek prozedura honetan xedatutako 2. eta 3. puntuak betetzen dituztela.
- Zorroren batek politikak betetzen ez dituela detektatzen bada, Barne-kontrolerako Unitateak horren berri emango dio Inbertsio-taldeari.
- ESG ratinga ustekabean jaistearen edo informazio nahikorik ez ematearen ondorioz irizpide horietako bat betetzen ez bada, inbertsio sailak hilabeteko epea izango du ez-betetzea konpontzeko, jakinarazpena jasotzen den unetik hasita.